



AMAIA ZENTROA  
Benito Perez galdos z/g  
01002 GASTEIZ  
araba@bertsozale.com  
945010505



Horra bertsoa definitzeko  
Modu bat, simple samarra:  
**Loturak** aske egiten duen  
Espresabide bakarra

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

# Berripapera

## Abtx 2013: kronika profesional bat

Ijito Juakin



**Abel Enbeitaren baserriaren aurrean, txapelketaren aurkezpen eguneko argazkia**

*Ijito Juakin Hala Bedi irratiko Bertxoko irratsaioko kazetaria da; gaur egun Arabako bertsolarietaz dugun aditurik puntakoenetakoa. Berari zor diogu kronika hau; mila esker!*

Halabediko erredakzioan dei bat jaso genuen 2012an. 945-010505 ikusi (joe! Elkartetik!?) eta txinoetara jokatu genuen nork hartuko zuen, Bertxokon ohi dugun moduan (Bert Suitzan zegoenez eta Ruso Kariben libratu egin ziren; Gauza, Pontxo eta hirurok geratzen ginen). Nork galdu zuen argi dago, ezta? NIK. Lan edo marroi edo lan-marroi bat zegoen deiaren atzetik, Abtx 2013. Saio guztiak entzun, ikusi, sufritu, gozatu eta apunteak hartu.

**Nire lana urtarrilaren 19an hasi zen.** Abornikanon agertu nintzen goizeko hamarretan, koaderno besapean nuela, Txapelketaren aurkezpen txapa entzuteko prest. Baina hori beharren, Abel Enbeita ezagutze-ko plazera izan nuen (ez, ez du parte hartzen Txapelketan... edo bai). Berak irakatsi zien lehen arabar bertsolari modernoei (X. Rico, Ricardo, Patxi... BAI, hauek ere “modernoak” dira), hau da, berak jarri zuen hona ekarri gaituen lehen harria. Pozik ikusten nuen Abel hainbeste gaztez eta ez hain gaztez inguratuta. Aurkezpenaren ostean, Batzar orokorra eta bertso bazkaria egon zen Arabako “txapeldunekin”. Ze polita Izarra! Ze jatorra Uxue! Ze hizkera Asierrek! Ze bertsojera txapeldunek! Ze.....! Ederki pasa nuen egia esan, pena bakarra dut egun horrekin, bazkal aurreko poteoan koaderno galdu nuela. (hurrengo orrian jarraitzen du)



# Abtx13: kronikaren jarraipena

Ijito Juakin



**Kanporaketetan** 30 bertsolari aritu ziren (duela bi urteko semifinalistak (-Samaniego, +Komas) eta aurrekanporaketak gaitutako hamabi bertsolari). Lanteno, Elosu, Laudio, Agurain eta Lantziego izan ziren hautatutako herriak. Euren artean ezberdinak izan arren, saio goxoak eta herrietako jendea entzule oro har. Maila ederra erakutsi zuten bertsolari berriek. Sorpresa handienak bi bertsolarik eman zituzten: Paula Amilburuk eta Serapio Lopezek. Paula Amilburuk egurra eman zuen Elosuko saioan eta Iñaki Viñaspre edo Ricardo Glez de Durana bezalako klasikoen gainetik geratzea lortu zuen. Laudion Serapio 20 urte inguruko gazteekin lehiatu zen eta erakutsi zuen zein den esperientziaren balioa. Menu ederrak eskaini dizkigute herriek zein bertsolariek. Portzieto! Eskerrak bazkari/afariak kazetari prezioan (doan) jarri zizkidatela, bestela!

Kanporaketetako afari giroa bukatu zen, **finalaurrekoak** iristean. Izarrako, Aramaioko eta Dulantziko aretoak hautatu zituen Elkarteak.

Izarrako saioan, sailkapenak horrela erabakita, esperientziadun gizonak edo beteranoak tokatu ziren (edo Abelekin hasitako modernoak edo “Kakiturri” nire lagun batek zioen moduan). Bertsolariak fin aritu ziren. Asier Otamendi izan zen nagusi. Bigarren Serapio Lopez geratu zen, kanporaketetako lan onaren bidetik jarraituz.

Aramaioko saioan Aramaioko hiru, gertu bizi den bat, beterinaixuen semie eta Aiarako kantantea aritu ziren. Bakoitzak beretik eta berea eman zuen eta aramaixoarrek ederki eskertu zituzten beraienen aleak. Lan polita egin zuten Manex Agirrek eta Ander Solozabalek lehen eta bigarren geratuta, horren erakusgarri argiena 10eko txikian egindako lana. Zigor Enbeitak ez zuen saio osoa egin eta lehen postuetatik urrun geratu zen.

Dulantziko saiorako bi ohiko finalista geratzen ziren (Txikia eta Abetxukokoa) eta sorpresa emateko prest zegoen laukote bat (Marrazki biziduna, Konkisekua, Tabernaria eta Estrellita Morente). Saio orekatua eta bizia izan zen entzuleentzako eta epaileen hitzak hala erakutsi zuen, 20 punturen barruan lehen laurak!!! Gauzak horrela, Iñaki Viñasprek (saioko txapeldunak) eta hurrenez hurren geratu ziren Ruben Santxezek, Oihane Pereak eta Jagoba Apaolazak eskuratu zuten finalerako txartela.

Dena erabakita dago, beraz, **MARTXOAREN 16an** Gasteizko **PRINTZIPALEAN** jokatu den final handirako. Maialen Kortabariaren aginduetara arituko den seikotea: Asier Trotamundi, Jagoba Kolakaotaza, Mané AsLibre, Iñaki Bignaspren, Oihane Peleas eta Ruben Rodando Pantxez (pantxotasunean bakarra). **ON EGIN!**



# ABE OBO (Arabako Bertsozale Elkartearen Ohiko Batzar Orokorra)

Oier Suarez

Urtarrilaren 19a zen, Izarran geunden, euria goian behean ari zuen. Abel Enbeitaren baseritik bueltan ginen, Abornikanotik bueltan, Behekoiturri elkarteko goiko pisuan hamaiketako egin ostean beheko aretora jaitsi ginen. Aulkiak prest, Power Point-a pantailan, ia Zuzendaritzakide guztiak mahai atzean, osotara 48 lagun.

12:00etan, gure lehendakaria den Ekaitz Elorriagak, Batzar Orokorrari hasiera eman zion, eskuak bata bestearekin. Gero, eskualdez-eskualde joan ginen, errepasoa egiten: Aiaraldea, Gasteiz, Zuia-Gorbeialdea... *txirrin-txirrin, jo zuen telefono batek...* Lautada, Arabako Errioxa, Mendialdea, Añana eta Trebiñu. Azkeneko hiru hauek bultzadatxo bat behar badute ere, orokorrean egoera onean gaude, ezta? Baietz esango nuke!

Idazkaritzakoek lan txukuna egiten ari direla esan zuten: finantzak salbatu dira, euskara teknikariek harremanetan gaude, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko zuzendaritzetan eta sailletako bileratan parte hartze aktiboa dute *txirrin-txirrin, berriro ere telefono hotsa...*



Abel Enbeita eta Karla Santisteban, OBOaren ondoren

Horrela, Komunikazioaren atalera pasa ginen. Berripapera, bazkideekin etengabeko harremana, Bertxoko, sare sozialak eta "wed"-gunea. Gero Transmisioa: hezkuntza arautuan egoera berdinean mantendu gara, ez da gutxi! 2180 ikasle 41 ikastetxetan. Barnetegiak eskualdeka, gazteen topaketak, eskolartekoa, udalekuak eta bertso eskoletako irakasleen prestakuntza. Horrela, 2012ko erronkak bete dira!

Sustapen aldetik grafiko pila bat! Laburtzeko hitz klabeak: presentzia, bertsozaintza, bertsozaletasuna eta gizarteratzea. Ondoren Ikerkuntza, a ez! *txirrin-txirrin...* barkatu, orain bai, ikerkuntza. Urtean zehar ospatutako bertso saioen datu bilketaz arduratzen da, besteak beste. 30 saiotako audioa eta 25 saiotako bideoak grabatu dira eta 43 saiotan argazkiak atera dira, hori guztia nora doa? Xenpelar Dokumentazio Zentrora. Haitzondo datu basea ere eguneratu da eta "de repente... bertsoa!" jardunaldiak antolatu dira.

Aurrekontuari dagokionez... grafiko gehiago, eta zenbakiak ere nonahi! uffa... eskerrak bukatzen ari garen! Laburtzeko, murrizketak murrizketa, positiboan bukatu dugu urtea. Eta ez alde ekonomikotik bakarrik, elkartearen helburuak ere bete egin baitira, zorionak!

Txapa bukatuta, poteatzera joan ginen, eta 15:00etan bazkaltzera. Catering-ak dena prest zuen, menuaz oroitzen ez banaiz ere, ona zegoela esango dut eta artoski prestatua. Bazkal ostean, nola ez, Txanpinoien saioa.

## Kolorez bete dezagun udaberria!

ABE transmisioa

**BERTSO ABENTURA**  
ESPEJON, apirilaren 3, 4 eta 5ean  
MARKINAN, apirilaren 4, 5 eta 6an

**KOLOREZ BETE DEZAGUN UDABERRIA!**

14-18 urteko gazteentzat | Lehen Hizkuntzako 3, 4, 5, eta 6. mailako ikasleentzat

**GORBEIALDEKO BERTSO BARNETEGIA**  
IZEN EMATEA: Martxoaren 22a baino lehen  
ZUIAKO KOADRILAKO UDALETAN

**AIARALDEKO BERTSO BARNETEGIA**  
IZEN EMATEA: Martxoaren 7a baino lehen  
PLAZA HAITZONDOAN

**AIARA, AMURRIO, LAUDIO, ARTZINIEGA ETA URDUÑAKO UDALETAN**

Informazio eta izen ematei: [www.aberriak.com](http://www.aberriak.com) | [informacion@aberriak.com](mailto:informacion@aberriak.com)

Antolatzaileak: **Laudio**, **AMURRIO**, **Artziniega**, **Urduñak**

Aurtengoan ere Lautadako bihotzera egin genuen salto Lautadako eta Mendialdeko haurrok, Gabonetako oporrak aprobetxatuz urtea bertso abenturan murgilduta hasi genuen. Sarritan egon gara Barrian baina gustatzen zaigun lekua da, baditu hainbat txoko berezi eta hainbat grazi, konbetua izan zelako ote?

Jolas pila bat egiteko aukera izan genuen bertan eta bisita ezberdinak izan genituen. Oskar Estanga kantaria etorri zen gurera eta lotsak alde batera utzita kantan eta dan-tzan aritu ginen gauerdiraino, lotsa izateak lotsa ematen digulako! Ta gutxi ez balitz hurrengo egunean Iñaki Viñaspre eta Jon Ruiz de Pinedo etorri ziren. Han aritu ziren kantatu hemen eta kanta zuk han...

Eta ez garelako aspertzen, udaberrirako ere prestatu ditugu beste pare bat:

**BERTSO ABENTURA ESPEJON**  
Apirilaren 3, 4, eta 5ean, 8-12 urte  
arteko haurrentzat  
**IZEN EMATEA: martxoaren 7a**  
baino lehen, Aiara, Artziniega,  
Amurrio, Laudio eta Urduñako  
Udaletan

**BERTSO ABENTURA MARKINAN**  
Apirilaren 4, 5, eta 6an, 14-18 urte  
arteko gazteentzat  
**IZEN EMATEA: martxoaren 22a**  
baino lehen, Zuiako Koadrilako  
Udaletan

# ZERNAHI: norena haiz, gorputz?

Manex Agirre



Mmmm.... Zenbat jendeak pentsatuko zuen, txapelketako aurtengo kartela ikusita: *norena da gorputz katxarro hori? Ezagutuko nuke gustura, eta labur baina egoki gelditzen zaion kamiseta hori nire eskuez altxa, eta azpian zer dagoen begiratu, eta pintxo-dun gerriko hori askatu, eta azpian zer dag...* Eta borrelako gauzak? Bertsozale izan, edo ez izan, arreta deitzen du mikrofonoaren ondoan dagoen gorputz eskultural horrek, dudarik gabe.

Inor nor den esatera ausartzen bada, jarri harremanetan Bertsozale Elkartearekin, ohiko bideetatik. **Porra bat** antolatu dugu: asmatzen duenarentzat, Arabako sustapen arloko arduradunaren besarkada amoroso bat daukagu prest.

## AGENDA

**Martxoak 9, larunbata. AGURAINen, 19:30ean Herriko Tabernan**

BERTSO TABERN. Ander Solozabal, Jagoba Apaolaza eta musikariak (Akordeoa, "Jere", Saxofoia: Mikel Irusta, Gitarra: Jorge Lauzurika, Bateria: Gorka Etxebarria, Bibolina: Maddi Ane Txoperena. Euskal Herriko Mus Txapelketak antolatuta

**Martxoak 9, larunbata, GASTEIZen, 19:00etan Dendaraba aretoan**

JON AZPURU BERTSO PAPER ETA KANTA TXAPELKETA. Arabako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6 mailakoek eta DBHko ikasleak. Egibidek antolatuta

**Martxoak 20, asteazkena, GASTEIZen, 21:00etan Aizkora tabernan**

III. BERTSOKATU TXAPELKETAren hasiera. Kutxiko katu-tabernek antolatuta.

**Martxoak 21, osteguna, LAUDION, 19:30ean**

BERTSO BATUKADA, Korrikaren ondoren. Ander Solozabal, Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren. Korrika batzordeak antolatuta

## ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2013: FINALA

**Martxoaren 16an, 17:30ean, Gasteizko Printzipal antzokian**

Sarrerak salgai [bertsosarrerak.eu](http://bertsosarrerak.eu) webgunean

**LOTU!**



Manex Agirre

Asier Otamendi

Oihane Perea

Iñaki Viñaspre

Ruben Sanchez

Jagoba Apaolaza